




Villava cuatro visiones

.....

Atarrabia lau ikuspegi



Villava
cuatro visiones

Atarrabia
lau ikuspegi

COLECCIÓN DE TEMAS VILLAVESES
ATARRABIARI BURUZKO GAIEN BILDUNA
3

Título: VIILAVA CUATRO VISIONES
Edición: Ayuntamiento de Villava (Servicio de Cultura)
Coordinador de la Colección: José Vicente Urabayen

Impresión: Idazluma, S.A.

© 2002 Ayuntamiento de Villava

I.S.B.N.: 84-606-3316-0
Depósito Legal: NA-3499-2002

EDITA / ARGITARATZEN DU:



Villava

cuatro visiones

José M^a Ballesta

Adolfo Lacunza

Paco Ocaña

Juantxo Oskoz

Tienes en tus manos un nuevo número de la "Colección de temas villaveses". En este caso está dedicado a la fotografía, y en concreto a las visiones y miradas, que cuatro fotógrafos ligados de una u otra forma a nuestra localidad tienen de la misma.

Cuando comenzamos la andadura de esta colección no sospechábamos la gran riqueza de temas que nos iban a surgir. La iniciamos con teatro, con nuestro teatro, posteriormente con una excepcional biografía sobre un insigne republicano que vivió los últimos años de su vida en Villava.

Ahora le toca el turno a la fotografía en su mejor expresión artística, ya que tenemos la suerte de contar con cuatro destacables fotógrafos, que nos dan su personal visión de Villava. Nos aportan su mirada hecha fotografía desde cuatro prismas diferentes, espacio natural, urbanístico, social, y humano, conformando una obra emotiva y sugerente.

La riqueza de matices, la personalidad de sus autores, la belleza de su obra han dado lugar a un libro que esperamos resulte de vuestro agrado.

Desde estas líneas queremos agradecer a los autores/creadores su esfuerzo, dedicación y entusiasmo, imprescindibles para la realización del libro que tenéis entre manos.

José Luis Uriz Iglesias
Concejal-Delegado de Cultura

Esku artean duzu "Atarrabiako gaien bildumaren" ale berri bat. Oraingo honetan argazkigintzari, eta konkretuki, era batera edo bestera gure herriari loturik dauden lau argazkilarik honi buruz duten ikuspegiari eta begiradari eman zaio tarte.

Bilduma hau taiutzeari ekin genionean ez genuen inolaz ere uste, halako aberastasunik sortuko zenik. Hasteko, antzerkia jorratu genuen, gure antzerkia. Ondoren, bere bizitzako azken urteak Atarrabian eman zituen izen handiko errepublikar baten biografia landu genuen.

Oraingo honetan argazkigintzari egokitu zaio tarte; adierazpen artistikoa bere mailarik gorenean eraikusten digun argazkigintzari alegia. Izan ere, zorte onekoak gara, Atarrabiari buruzko beren begirada pertsonala ematen diguten lau argazkilari nabarmen biltzeko aukera izan dugulako. Haien begirada argazkitan ekartzen digute, lau ikuspegi ezberdinetatik hartuak: ingurumena, hirigintza, gizarte arloa eta giza mailako ikuspegietatik hain zuzen ere. Honela, lan hunkigarria eta iradokitzailea osatu dute.

Ñabarduren aberastasunak, egileen nortasunak, hauen lanaren edertasunak, zuen gustuko izango den liburua osatzea ahalbidetu dute.

Lerro hauetatik, esku artean duzuen liburua gauzatu ahal izateko ezinbestekoak izan diren egile/sortzaile hauen ahalegina, ardura eta gogo bizia eskertu nahi ditugu.

José Luis Uriz Iglesias
Kultur Zinegotzi Delegatua

prólogo

Fotografiar una ciudad, por pequeña que ésta sea, es un empeño imposible. Una ciudad no sólo tiene calles, gentes, monumentos, comercios, parques y gente que los habita. La ciudad es un conglomerado de todo eso, a lo que hay que añadir los elementos intangibles, desde la Historia secular hasta el aire que se cuela por las rendijas de edificios y de personas. Cosas, ay, que no atrapa el objetivo de una cámara.

Pero justamente en ese desafío reside la gracia de la tarea. El toque está en intentarlo. Me adelanto a asegurar que el intento de estos cuatro espléndidos fotógrafos villaveses ha sido un acierto. Suele decirse que la misión del fotógrafo es ayudarnos a ver lo que pasa inadvertido a nuestra mirada opaca. Un tópico, ciertamente, pero que a veces se cumple con la verdad de un axioma. La Villava –las Villavas, sería mejor decir– que nos presentan los cuatro artistas tiene algo de inquietante, de enigmático, de conjetural. Pero es la que está ahí, en los mismos lugares que frecuentan los vecinos cada día. Sólo que cada uno la vive de forma distinta.

Digo enigmático porque a la fotografía urbana se le suele exigir que cumpla la función de un guardia de tráfico. Es decir, se espera de ella que dibuje planos,

señale distancias y marque direcciones. Nada tengo contra las fotos de postal turística ni contra las de guías de viajero, género que consumo con verdadera avidez. Pero precisamente por eso puedo decir que siempre me han parecido acartonadas, fósiles y sobre todo inexactas. Su pretensión de objetividad congela el alma de los lugares que cree mostrar en todo su esplendor. A quienes tenemos la rara costumbre de visitar los sitios nuevos perdiéndonos entre callejas en vez de colocarnos en la cola del preceptivo museo y preferimos hablar con los camareros o los tenderos en vez de preguntar en la oficina de Turismo, es el pequeño detalle lo que nos atrae. El pequeño detalle, y mejor todavía si es subjetivo.

Es con la infinita suma de piezas subjetivas como uno alcanza a aproximarse al mosaico de una ciudad. Si el observador atento de este libro se detiene en sus páginas una por una, descubrirá que la heterogeneidad de sus propuestas es sólo una primera impresión superficial. Hay en ellas una dialéctica de distintos –y hasta de opuestos–, en técnicas y en motivos, que justamente debido a su discrepancia produce un raro efecto de totalidad. Es decir, de Villava. Está lo que se ve y lo que no se ve, lo que ya no existe pero quizá perdure en el recuerdo de algunos y lo que va creciendo a toda velocidad, lo que cualquiera podría

reconocer sin gran dificultad y lo que sólo el ojo poético y atento consigue descubrir.

Pero en definitiva eso habrán de decirlo quienes vean el libro. Lo que sí puedo aseverar con más certeza es que aquí hay talento. Como sé del trabajo profesional de los autores, no me ha sorprendido la excelente factura de su trabajo. Ya digo que cada uno lo hace a su modo, porque concibe la fotografía también a su manera. El arte de la cámara es una de las más complejas que existen, y más en estos tiempos en que la tecnología le ha ampliado los horizontes hasta extremos inverosímiles. Hay maneras y maneras de hacer fotografía como hay maneras de pensar, de sentir o de vivir. Al propio tiempo el fotógrafo, que siempre se ha distinguido por ser cuidadoso y detallista hasta lo impensable, se ha convertido ahora en un perfeccionista tan inclemente consigo mismo que casi nunca da por bueno cada uno de los pasos de su proceso. Llamar “instantánea” al resultado de una elaboración tan rigurosa es casi una ofensa. El fotógrafo atrapa el instante, ciertamente, pero su misión es convertirlo en algo durable.

Durable como la ciudad que han contemplado y que ahora dejan mostrada en este libro que resulta ser a la vez testimonio de lo existente y exhortación a lo posible. Porque, si Villava está en evolución, no menos lo está el espíritu de sus vecinos y mucho más el de sus artistas. Testimonio y utopía, ruina y desarrollo, aspereza y lirismo, evidencia y sueño, solem-

nidad e ironía, progreso y naturaleza, silencio y música, sombra y color, ceremonia y cotidianidad, fealdad y belleza, hormigón y flores, noche y día, trabajo y fiesta, localismo y universalidad, todo eso y mucho más invitan a ver estas fotografías en la realidad de una Villava en marcha.

José María Romera

hitzaurre

Hiri bat argazkitan ateratzea, hiri hori oso txikia dela ere, ezinezko ahalegina da. Hiri bat, bertako kaleak, jendeak, monumentuak, dendak eta parkeak baino zerbait gehiago da. Hiria, horren guztiaren metaketa da. Gainera, horiei guztiei hainbat aspektu gehitu behar zaizkie: urteetako Historiatik hasita, eraikinetako eta pertsonetako zirrikituetatik sartu ahal den aireraino. Gauzak, azken finean, kamara baten objektiboak harrapa ezin dituenak.

Baina erronka horretan datza, hain zuzen ere, lan honen xarma. Saiatzean dago koska. Eta aurrera dezaket Atarrabiako lau argazkilari nabarmen hauen saioa erabateko arrakasta izan dela. Esan ohi da, argazkilariaren eginbeharrekoa dela gure begirada opakoari ihes egiten dion hori ikusten laguntzea. Topiko bat, zinez, baina batzutan, axioma baten egiaz betetzen dena. Artista hauek lauek aurkezten diguten Atarrabia -aurkezten dizkiguten Atarrabiak esan beharko genuke- kezkarria, misterioa, ustezkoa agertzen zaigu neurri batean. Ba horixe da dagoena, herritarrek bisitatzen dituzten leku bertuetan.

Eta misterioa diot hiri-argazkigintzari trafiko-zaintza lana egitea eskatzen zaiolako. Hau da, planoak egitea, distantziak adieraztea eta norabideak fin-

katzea eskatzen zaio. Ez dut ezer turismoko postalen eta bidaiarien giden argazkien aurka, izan ere, irrika bizian begiratzen baititut hauek. Baina horrexegatik esan dezaket, ihartuak, zaharkituak, eta batez ere, ez-zehatzak iruditzen zaizkidala. Hauen objektibotasun nahiak, ustez bere edertasunik ederrenean erakusten dituen tokien arima izozten du. Hainbatek ohitura bitxiak ditugu toki berriak bisitatzera joaten garenean. Karriketan zehar ibiltzea atseginago dugu, nahitaez ikusi beharreko museoaren ilaran zain egotea baino. Gusturago egoten gara tabernari edo dendari batekin solasean turismo bulegoan galdetzen baino: xehetasun xumeek erakartzen gaituzte. Xehetasun xumea, eta subjektiboa bada, are hobeto.

Atal subjektiboen batuketa amaigabearen bidez iritsiko gara hiri batek osatzen duen mosaikoa ikustera. Liburu honen behatzaile zoliak bere orrialdeak banan-banan ikusten baditu, lan honen heterogenotasuna azaleko lehen inpresio bat baino ez dela ohar-tuko da. Orrialde hauetan, ezberdinen -are gehiago, kontrajarrien- dialektika ikusten ahal da, teknikan zein gaietan. Eta hain zuzen ere, desadostasun honek osotasun efektu bitxia sortzen du. Alegia, Atarrabia osoa erakusten du. Ikusten eta ikusten ez dena dago; jada ez dagoena baina agian batzuen oroimenean mantentzen dena eta abiadura bizian aldatzen doana

ere; edonork erraz asko antzemango lukeena eta begi poetiko zoliak baino deskubritu ezin duena.

Edozein modutan, azken hitza liburua ikusten dutenek beraiek dute. Ziurtasun osoz baieztza deza-kedana da, liburu honetan talenturik badela. Lan honen edertasunak ez nau harritu, izan ere, egileen lana ezagutzen baitut. Esan, esan dut lehen ere, bakoitzak lan egiteko bere modua duela, bakoitzak argazkigintza bere erara ulertzen duelako. Kameraren artea direnetan konplexuenetakoa da, eta are gehiago gaur egun, teknologiak pentsaezinez-ko bideak ireki baitizkio. Argazkiak egiteko era asko dago, pentsatzeko, sentitzeko edo bizitzeko era asko dagoen bezalaxe. Aldi berean, betidanik bere lana zaindu eta zehaztasun osoz egin duen argazkilaria perfekzioaren bidean murgildu da gaur egun. Eta hala, ez du gupidarik bere buruarekiko eta oso gut-xitan ematen ditu ontzat argazki bat egiteko proze-suan eman beharreko urratsak. Halako lan gogorra-ren emaitzari "bat-bateko argazkia" deitzea iraingarria da. Argazkilariak unea harrapatzen du, bai horixe, baina haren eginbeharra une hori iraun-kor bihurtzea da.

Iraunkorra, argazkilariak beraiek ikusi duten hiria bezalaxe. Orain, liburu honetan erakusten dute hiri hori. Liburu hau dagoenaren lekuko eta izan dai-tekeenari begira eskari bat ere bada. Izan ere, Atarrabia bilakabidean murgilduta badago, neurri berean dago bertakoen gogo eta neurri handiagoan

bertako artistena ere. Testigantza eta utopia, honda-mena eta garapena, lazadura eta lirismoa, begien bis-takoa dena eta ametsa, handitasuna eta ironia, aurrerapena eta ingurumena, isiltasuna eta musika, itzala eta kolorea, ospakizuna eta egunerokotasuna, itsustasuna eta edertasuna, hormigoia eta loreak, gaua eta eguna, lana eta jaia, herritartasuna eta uni-bertsaltasuna. Hori guztia eta askoz gehiago gonbite ederra da argazkiok ikusteko; Atarrabia bizi-bizirik dagoela erakusten duen errealitatea, alegia.

José María Romera

José M^a Ballesta

Adolfo Lacunza

Paco Ocaña

Juantxo Oskoz

Quiero agradecer a todos los miembros de la comisión de Cultura del Ayuntamiento y al técnico de cultura, la idea que han tenido, al dedicar el tercer volumen de la "Colección de temas Villaveses" a la Fotografía.

Como fotógrafo, agradecerles su sensibilidad para con este medio de expresión y comunicación, demostrada a lo largo de estos últimos años con la celebración anual de: exposiciones, concursos, cursillos, etc., que contribuyen a dar a conocer esta disciplina y, a su vez, posibilitan el desarrollo cultural de las personas.

Como villavés, agradecerles también el placer que he sentido al realizar el encargo de describir con imágenes, momentos y aspectos de la vida de mis vecinos en los últimos años; acontecimientos deportivos, sucesos políticos, celebraciones populares y festivas, actos culturales y folklóricos, manifestaciones religiosas... No voy a entrar en detalles, quiero que sean las propias imágenes las que os motiven el recuerdo y el comentario.

Soy consciente, que en 20 fotografías no os puedo mostrar todos los aspectos anteriormente nombrados. Necesitaría el libro entero para transmitir la vida tan intensa y llena de acontecimientos que hoy tenemos en Villava.

Con este libro quisiera que todos los villaveses guarden un momentos de su historia.

Eskerrak eman dizkiet Udalaren Kultura batzordeko kide orori eta kultura teknika-riari, "Atarrabiako Gaien Bildumaren" hirugarren alea Argazkigintzari eskaintzea erabaki dutelako.

Argazkilari gisa, adierazpen eta komunikazio bide honekiko erakutsi duten sentsibiltatea eskertu nahi diet, azken bolada honetan, urtero antolatu bait dituzte gai honekin zuten hainbat erakusketa, lehiaketa, ikastaro, etab. Izan ere, ekimen hauen bidez argazkigintza ezagutarazteaz gain, pertsonen garapen kulturala ahalbidetzen da.

Atarrabiar bezala, nire herrikideen azken urteotako bizitzaren hainbat momentu eta aspektu irudien bidez jasotzeko jaso nuen enkargua eskertu nahi diet. Bertan jaso ditut: kirol emanaldiak, gertaera politikoak, herri eta jai ospakizunak, kultur eta folklore ekitaldiak, adierazpen erlijiosoak... Ez ditut xehetuko, irudiak beraiek zuen oroimenaren eta iritziaren suspengarri izan daitezen nahi dut.

Jakin badakit 20 argazkitan ezin dizuedala lehen aipatu aspektu guztiak islatu. Liburu oso-osoa beharko nuke gaur egun Atarrabiak ezagutzen duen bizitza bizi-bizia eta gertaeraz betea zuenganatzeko.

Liburu honekin atarrabiar orok beren historia-ren momentu batzuk gorde ditzaten nahiko nuke.



Celebrando delante del Ayuntamiento el triunfo de Miguel Indurain en el Tour del Porvenir. (27-09-86)



Entrega de una reproducción del "Fuero" a los últimos Alcaldes de la Villa: Laquidain; Posadas; Eransus; Zozaya y Arrasate, con motivo de la celebración del VIII centenario de la fundación de la villa de Villava. (1184-1984).



Una de las primeras manifestaciones, en apoyo del Euskera; la Korrika; portando la enseña, Mariano Erice. (Año 1983).



Recibimiento en la
Trinidad de Arre al
Ángel de Aralar. (Año
1986).



Final del campeonato de mus, en fiestas, el día de "la Colonia". (Año 1993).




Miembros de la comparsa de Gigantes, junto con Miguel Indurain, el día que inauguró la plaza que lleva su nombre. (Año 1991).



Miembros del equipo de balonmano del Beti-Onak, a su llegada a Villava con la copa de campeones de 1^a categoría nacional y ascendidos a división de honor. (Año 1984).



Aspecto de la calle Mayor en fiestas. (Año 1987).



Casa de cultura, Centro de Jubilados, un grupo de mujeres se entretiene jugando a cartas en el patio. (Año 1983).



Agüero y Andueza, dos veteranos ciclistas, en una entrega de trofeos. (Año 1986). Fiestas de Villava.



Paseo junto a la orilla del río Ultzama. (Año 2001).



Equipo de fútbol del Beti-Onak, entrenado por Javier Ederra; jugador de Osasuna. Temporada 85-86.



Pelotari realizando el saque en el frontón Atarrabia. (Año 1983).



Misa de funeral por el vecino de Villava, Jose M^a Mugueta. (Año 1994).



Viaje de "Villava Solidaria" con los niños rusos al "Señorío de Bertiz". (Año 1996).



Procesión del Corpus Cristi. (Año 1986)



Momento en que Luis Azpilicueta, concejal de Villava, casa a su amigo, Javier Vidaurre. (Año 2002).




Procesión de la Virgen del Rosario, acompañada de los Gigantes, en el 1º día de fiestas (Año 1994)



Danzas Regionales en la plaza consistorial, con motivo del "Ikastola Eguna". (Año 1983).



Celebración de las hogueras en la víspera de San Juan, en el solar que hoy es la Plaza de la Paz. (Año 1985).



Jose M^a Ballesta Ayúcar

Autodidacta.

TRAYECTORIA PROFESIONAL

Miembro del Taller Fotográfico Auzotegui. 1982-1990
Cofundador del Taller de Fotografía de la Casa de Cultura de Villava. 1982.
Monitor de los cursos de fotografía de la Casa de Cultura, años 82, 83 y 84.

EXPOSICIONES

Colectivas con el Taller Fotográfico Auzotegui. Sala de Cultura de Burlada, Sala Runa Pamplona.
Casa de Cultura de Villava. 1990.
Casa de Cultura de Villava 1998 "LA COLONIA".
Casa de Cultura de Villava 1999 "VIA CRUCIS".
Casa de Cultura de Villava 2000 "HONDARRIBIA".
Casa de Cultura de Villava 2001 "FIESTA JAIA".
Casa de Cultura de Villava 2002 "HONDARRIBIA II", "GIGANTE".

Jose M^a Ballesta Ayúcar

Autodidakta da.

JARDUERA PROFESIONALA

Auzotegi Argazkigintza Tailerreko kidea. 1982-1990.
Atarrabiako Kultur Etxeko Argazkigintza Tailerraren sortzailea beste batzuekin batera. 1982.
Kultur Etxeko Argazkigintza Tailerretan monitorea. 1982., 83. eta 84. urteak.

ERAKUSKETAK

Auzotegi Argazkigintza Tailerrarekin batean.
Burlatako Kultur Aretoa, Iruñeko Runa Aretoa.
Atarrabiako Kultur Etxea. 1990.
Atarrabiako Kultur Etxea. 1998. "LA COLONIA"
Atarrabiako Kultur Etxea. 1999. "VÍA CRUCIS"
Atarrabiako Kultur Etxea. 2000. "HONDARRIBIA"
Atarrabiako Kultur Etxea. 2001. "FIESTA-JAIA"
Atarrabiako Kultur Etxea. 2002. "HONDARRIBIA II", "GIGANTES"

José M^a Ballesta

Adolfo Lacunza

Paco Ocaña

Juantxo Oskoz

DE SERES Y ESTARES

Hay gente con un idioma extraño.... Usan una misma forma verbal para los conceptos, ser y estar. Con el encargo, iba explícita la necesidad de usar una forma verbal no hablada. Lo tenía que contar, pero con una herramienta sorda. No habla, pero deja las cosas dichas. Lo hace a base de gestos, y ninguno de éstos es registrado un segundo antes ni lo será un segundo después.

Tenía que contar de Seres y Estares, y lo tenía que hacer yo, que no soy pero estoy. Fotografíar gente, la gente; a la que es, a la que está....

Con este lenguaje se cuentan tan minúsculas porciones de vida, que a veces se padece con intensidad ese principio físico (que uno entiende mejor con la edad) de que "un cuerpo no puede, al mismo tiempo, estar en dos lugares". Y te invade la tentación de transgredirlo, de violentarlo, de jugar a que puedes hacerlo. Y surge el JUEGO, con mayúsculas. Una excusa para buscar al que es y quizás sólo encontrar al que está. Una excusa para ver lo que está y yo, que no soy, no conocía. Cruzarte "con", estando "en", y registrarlo... Colgar una máquina del hombro es cargarse de intenciones. Uno se arma para el juego, mira, selecciona, se implica y decide.

Cuando el juego es el principal desencadenante no se acaba al elegir, no se acaba al pulsar... (la

palabra "disparar" connota dolor y el mundo podría vivir perfectamente sin ella). Este, se culmina al elegir en las "barras de menú" la opción "Acoplar Imagen". Y antes ha habido infinitas dosis de cariño y total ausencia de pretenciosidad.

Contar la vida de un pueblo en sus gentes requiere la dosis precisa de implicación y distanciamiento respecto a las mismas. Un bagaje de conocimiento cercano a la fusión y a la vez una enorme capacidad de alejamiento. El afecto y la distancia, conocer desde la implicación y saber alejarse... y para ESO no había tiempo.

A todos-as que no sé si son pero estaban.

A Jone que SIEMPRE está.

A Katrín y Naroa, además de estar, SON.

Hainbat pertsona hizkuntza arrotz batean aritzen da.... Adizki bakarra erabiltzen dute izan eta egon kontzeptuak adierazteko. Enkarguarekin bat, ahoskatu beharrik gabeko adizkia erabiltzeko agindua heldu zitzaidan. Zerbait kontatu beharra neukan, baina ahotsik gabeko lanabesa erabiliz. Ez du hitz egiten ez, baina ederki esanda uzten ditu gauzak. Keinuak erabiltzen ditu, eta hauetako bakar bat bera ere ez da segundu bat lehenago jasota geratzen edo beranduago jasota geratuko.

Izanak eta Egonak kontatu behar nituen, eta neronek gainera: egon bai, baina izan, ez naizen nik neuk. Jendea hartu behar nuen argazkitan; jendea den hori, dagoen jendea, alegia....

Hizkuntza honekin bizitzako zati txiki hainbat kontatzen direla-eta, (adina aurrera doan ahal hobeki ulertzen den) "gorputz berak ezin duela, aldi berean, leku bitan" egon dioen printzipio fisiko hura indar handiagoz pairatzen da. Eta printzipio hura hausteko, haren aurka oldartzeko irrika etortzen zaizu, alegia printzipio hark dioenaren aurka jolasteko gogoia heldu zaizu. Eta JOLASA sortzen da, hizki handiekin. Hauxe da aitzakia, den hura bilatzeko, eta agian dagoen hura baino ez aurkitzeko. Dagoen hura ikusi, eta ez naizen nik ezagutzen ez zuen hura ikusteko aitzakia, hain zuzen ere. "Norbaitekin" topo egin, "nonnahi" egonda ere, eta huraxe jaso.... Argazki

makina bizkarrera eramaten duzunean, asmoz beteriko zakua bizkarreratzen duzu. Jolaserako prestatzen zara, begiratu, aukeratu, inplikatu eta hautua egin behar duzu.

Jolasa eragile nagusia denean aukeraketa ez da horretan amaitzen, kliskatze hutsean ez da amaitzen...(kliskatu esateko erabiltzen dugun "tiro egin" hitzak oinazea dakar berarekin eta mundua ederki asko bizi zatekeen hura gabe). Jolasa, "menuaren barran" "Irudia moldatu" aukera hautatzen duzunean amaitzen da. Eta aurretik, maitasun dosi amaigabeak eta handinahi eza erabatekoa izan dira.

Bertako biztanleak ardatz hartuta, herri baten bizitza kontatzeak, jende hauekiko hurbiltasun eta urruntze dosi egokiak eskatzen ditu. Hauen ezagutzak fusioaren hurbil egon behar du, eta halaber, hauengandik urruntzeko gaitasunak oso handia izan behar du. Afektua eta distantzia, inplikazioan oinarritutako ezagutza eta urruntzen jakitea aldi berean.... eta HORRETARAKO ez zegoen astirik.

Direnik ez dakidan, baina zeuden orori.

BETI dagoen Joneri.

Katrin eta Naroari, egoteaz gain, IZAN direlako.

Villava cuatro visiones





Villava cuatro visiones










Villava cuatro visiones





























Villava cuatro visiones



Adolfo Lacunza

Nace en Huarte-Pamplona y reside en Villava desde el año 1979.

De formación autodidacta trabaja en un estudio hasta que entra a formar parte de la plantilla de fotógrafos del diario Navarra Hoy, donde trabaja como reportero gráfico entre los años 1985-1991. Le han sido publicadas fotos en diferentes anuarios de prensa (La Caixa), así como en el recopilatorio "Imágenes de Euskadi 1978-88", y "25 Años del Euskalategi Arturo Kanpion".

Realiza un ensayo fotográfico sobre un personaje, que posteriormente expone en la Casa de Cultura de Villava, Club Auzotegi y Casa de Cultura de Tafalla.

En el año 1992 dá un giro a su carrera y entra a desarrollar su profesión en el mundo de la fotografía publicitaria. Colabora habitualmente con los Ayuntamientos de Pamplona (impartiendo clases y como miembro de diferentes jurados) y Villava.

Instituciones públicas y privadas, agencias de publicidad, empresas editoras y diseñadores gráficos son sus clientes habituales.

Adolfo Lacunza

Uharten jaio zen baina Atarrabian bizi da 1979az geroztik.

Prestakuntza autodidakta izan du eta estudio batean egin zuen lan Navarra Hoy egunkariko argazkilari taldean sartu arte. Bertan aritu zen lanean erreportari grafiko moduan 1985etik 1991. urtera bitarte. Bere argazkiak hainbat prentsa-urtekaritan (La Caixa) eta bildumatan ("Euskadi iruditan 1978-88" eta "Arturo Kanpion Euskalategia. 25 urte") argitaratu ditu.

Pertsonaia bati buruzko argazkigintza-saiakera egin zuen eta ondoren hainbat tokitan erakutsi zuen: Atarrabiako Kultur Etxea, Auzotegi eta Tafallako Kultur Etxea.

1992an bere karrerak beste norabide bat hartu zuen eta publizitate-argazkigintzan murgildu zen. Iruñeko Udalarekin (eskolak ematen eta epaimahaietan) eta Atarrabiakoarekin egiten du lan sarritan. Bere bezero ohikoenak erakunde publiko eta pribatuak, publizitate-agentziak, argitaletxeak eta diseinugile grafikoak dira.

José M^a Ballesta

Adolfo Lacunza

Paco Ocaña

Juantxo Oskoz

CUANDO EL TIEMPO ES LUZ

A la conocida frase *el tiempo es oro* se le suele asignar una connotación de tipo cuantitativo e incluso, a veces, económico, en referencia a la idea de la pérdida o del ahorro del mismo. En fotografía el tiempo va alineado con la fugacidad y lo instantáneo que, a resultas de una cierta utilización de la cámara para el control de ese tiempo, se convierte en radicalmente definitivo y concreto cuando se traduce en la luz de una imagen. En fotografía el tiempo es luz y hay que atraparlo en el destello de unas décimas de segundo. Ese tiempo increíble e inverosímil que se utiliza en la obtención de una imagen, (me refiero al disparo,) curiosamente adquiere un reconocido valor *de eternidad* en su traducción y plasmación sobre el papel, de permanencia en el futuro, de autenticidad y veracidad casi indiscutible, que se convierte automáticamente en un documento visual para la posteridad. Digo *casi* indiscutible porque *es* discutible y cuestionable. La fracción de segundo que se utiliza en el retrato de un personaje, ¿es válida para definir la personalidad de ese personaje, para describir en una imagen todo un cúmulo de experiencias y vivencias? La fotografía, en su apariencia de evidente verosimilitud, esconde una realidad al borde de una gran mentira. La fotografía es luz y, a veces, luz oscura.

Vienen estas consideraciones a propósito y como consecuencia de una propuesta para fotografiar Villava. El sugerente proyecto se estructura en varios apartados y a mí me corresponde ofrecer una visión *urbana* con total libertad de visión y planteamiento. Inmediatamente surge la duda: ¿fotografiar Villava como otro recuerdo documental más para añadir a la memoria general de la villa, o como el relato visual subjetivo fruto de sensaciones y vivencias que, como ciudadano y vecino, pudiera enhebrar a través del hilo conductor de unas imágenes? Y tengo que admitir las dos posibilidades, porque no puedo sustraerme a ninguna de ellas.

Repaso algunos negativos obtenidos pocos años atrás y se me presenta y reafirma una Villava en tránsito de ayer a hoy, en contradicción por su continuo cambio fruto de su propia vitalidad. Una Villava relativamente reciente pero fronteriza en el tiempo, que permanece en el recuerdo y la memoria de muchos, que vive en la ficción del pasado y que ha sido superada por la realidad del presente. Una Villava cambiante, múltiple y variada, desordenada y, a veces, caótica, a causa de su evolución en los años recientes y de ahora mismo, caminando hacia la modernidad implacable que se impone en tensión con la fuerza de una inercia que se resiste ante esa modernidad. Me refiero a la

urbe, pero no excluyo a su gente. Una Villava mestiza ya en casi todas sus manifestaciones, que se debate entre su propia personalidad contra la absorbente presión del atractivo de la cercana Pamplona. Una Villava superada por la nueva savia de otros habitantes, que oscila en el columpio de los días, que construye, destruye y vuelve a construir porque las personas y sus necesidades bailan también la danza imparable del tiempo.

Me vinieron a la memoria los ejemplos tan distantes como necesarios de los maestros clásicos: *Alfred Stieglitz*, con sus fotografías sobre New York en la primavera de los rascacielos y el episodio reciente de las Torres Gemelas; *Eugene Atget* recorriendo un viejo París decadente y napoleónico en el imposible propósito de recuperar lo que ya había sido sentenciado por el dictamen del tiempo. Volví a hojear otros libros con imágenes urbanas de autores de más reciente actualidad; imágenes de tan conocidas, ineficaces, en las que solo vi el reflejo del paso del tiempo y sus estragos, un tratado de la decadencia servido en imágenes, y todo tan verdadero a la vista como irrepetible en la realidad.

Y regreso, salvadas las distancias, a esta Villava pequeña y ensimismada, tan idéntica a muchas otras localidades de casi todos los sitios y tan animosa en su afán diferenciador; y salgo a la

calle, estimulado a pesar de todo, dispuesto a inmovilizar a ese tiempo enemigo, a dominarlo en el campo de batalla de las calles casi vacías, a reducirlo contra las fachadas de los edificios, a robar la luz brillante y la otra luz oscura de las sombras, a encajar las nubes y el aire en un rectángulo de plata negra, como otros hicieron antes.

Recorrí las calles, como otras veces, como el explorador que abandona su refugio al encuentro de algún prodigio que arrebatara al tiempo en décimas de segundo, olvidando, como otras veces, que cuando el tiempo es luz, se hace fugaz e inaprensible; y que es pasado, y que algunos de los trofeos que yo pudiera sustraerle son solamente un regalo suyo, un préstamo a largo plazo para que pudiera mostrarlo entre estas hojas.

...Y para hacer creer a quien las mire, que lo he atrapado con éxito.

Paco Ocaña

Septiembre, 2002.

Denbora *urre dela* esaldi ezagunari kantitateko konnotazioa erantsi izan zaio, eta are gehiago, batzuetan, ekonomia arlokoa ere. Azken hauetan, denbora galdu edo aurreztu izanaren ideia lotua gehienetan. Argazkigintzan denbora iheskortasunaren eta bat-batekotasunaren lerro berean kokatzen da. Hala ere, eta denbora hori lantzeko egiten dugun kameraren erabilpen jakin baten ondorioz, aipatu denbora guztiz behin-betikoan eta konkretuan bihurtzen da irudi baten argian islatzen denean. Argazkigintzan denbora argi da eta segundo baten hamarren batzuk irauten duen distiran harrapatu behar da. Irudi bakar bat lortzeko erabiltzen den denbora sinesgaitz eta gezur-itxurako hori, (kliskatzeari nagokio), bitxia bada ere, **betikotasunaren** balio aitortua hartzen du paperean paratzean, etorkizunean iraungo duenarena, benetakotasun eta egiazkotasun ia eztabaida ezinarena. **Ia** eztabaida ezina diot, eztabaidagarria eta zalantzazkoa **delako**. Pertsonaia baten erretratua egiterakoan erabiltzen den segundo baten zati txiki horrek, balio al du pertsonaia horren nortasuna definitzeko?, eta balio al du irudi bakar batean esperientzia eta bizipen guztiak biltzeko?. Argazkigintza, itxura batean egiazkotasunaren isla dena, gezur handi baten alboan dagoen errealitate jakin baten gordelekua da. Argazkigintza argi da, eta batzutan, argi iluna.

Gogoeta hauek guztiak egiteko arrazoia eta ondorioa Atarrabia argazkitan jasotzeko proposmena da. Proiektu erakargarri hau hainbat ataletan egituratzen da. Niri, ikuspegi eta planteamenduan askatasun osoa erabiliz, herriaren **hiri-giroaren** berri ematea dagokit. Eta zalantza berehala sortzen da: Atarrabia argazkitan hartu, herriko oroimenean gordeta geratuko den oroitzapen dokumental moduko bat eginez, edo, herritar eta biztanle bezala irudi batzuk eskaintzen didaten haria aitzakiatzat hartuta bilbatu ahal dudan begien bidez jasotako kontakizun subjektiboa burutu?. Bi aukerak kontuan hartu beharko, ezin baitut bata zein bestea albo batera utzi.

Urte gutxi lehenagoko negatibo batzuk gainetik begiratuta, iraganetik gaur egunera doan Atarrabia ikusi eta berretsi ahal dut, kontraesanetan murgilduta, berezko bizitasunaren ondorioz etengabe aldatzen doana.

Atarrabia nahiko berri bat ageri zaigu, iraganetik oso gertu dagoena hala ere, askoren oroimenean eta oroitzapenetan mantentzen dena, iraganaren irudipenean bizi eta egungo errealitateak gainditu duena. Atarrabia aldakorra ikusten dugu, askotarikoa eta anitza, nahaspilatua eta batzutan kaotikoa, modernitateranzko bidean oraintsu iragandako urteetan eta gaur egun bertan jasaten duen bilakaeraren ondorioz. Hala ere, gailentzen ari den modernitate gupidagabe horren aurkako indarra ere sumatu ahal da herrian.

Hiriari nagokio, baina bertako biztanleak albo batera utzi gabe. Atarrabia mestizo bat ikusten da ia agerpen guztietan, bere nortasunaren eta hain gertu duen Iruñaren erakargarritasunak eragindako presio zurgatzailearen arteko borroka nabari daitekeelarik. Biztanle berriek suposatzen duen odol berriak gainditua du jada egungo Atarrabia. Egunen joan etorriaren zabuan kulunkatzen da; egun batean eraiki egiten du, suntsitu eta berriro eraikitzeke, pertsonak eta hauen beharrak denboraren dantza geldiezinean dantzan dabiltzalako ere.

Gogora etorri zitzaizkidan maisu klasikoen eredu urrutiko bezain beharrezkoak: *Alfred Stieglitzen* New Yorkeko argazkiak etxe-orratzen garairik onenean eta berriago dugun Dorre Bikien garaian ere; *Eugene Atget*, Paris gainbeherako eta napoleoniko hartan osteratxoa egiten, denborak berak bere epaia eman aurreko izan zen hiri hura berreskuratu nahian. Hiriko irudien hainbat egile berriagoen liburuak begiratu nituen berriro: hain ziren ezagunak ziren eraginkortasuna oro galdua zutela. Hauetan, denboraren iragaitzearen eta honek eragindako hondamendiaren isla baino ez nituen ikusi: gainbeheraren entsegua iruditan baino ez, eta guztia hain egiazkoa begien aurrean, errealitatean errepikaezina den bezala.

Eta itzuli egiten naiz, urrutikoak alde batera utzita, Atarrabia txiki eta bere buruari begira dagoen honetara, hainbeste toki ezberdinetako

herrien antzekoa eta hain bizia bere ezberdintasuna aldarrikatzeko garaian; eta kalera ateratzen naiz, hala eta guztiz ere akuilaturik, arerio dudan denbora hori gelditu asmoz, ia hutsik dauden kaleetako bakardadeak eskaintzen duen guda-zelaian hura mendean hartu asmoz, eraikinetako aurrealdeetan preso hartzera, itzalei bere argi distiratsua eta argi ilun bestelakoa ere ebastera, hodeiak eta airea zilar beltzezko laukizuzen batean sartzera, beste batzuek aurretik egin zuten moduan.

Kaleak korritu nituen, beste batzuetan bezala, segundo hamarrenetan denborari mirariren bat ostera doan esploratzaileak bere gordelekua uzten duen moduan, ahaztuta, beste hainbatetan bezala, denbora argi denean, iheskorra eta harrapaezina dela; eta iragana dela. Eta jakin gabe gainera, denborari ostu ahal dizkiodan sariak bere opariak direla, epe luzerako mailegua baino ez, orri hauen artean erakutsi ahal izateko.

...Eta hauek begiratzen dituenari, hura harripatzean arrakasta izan dudala sinestarazteko.

Paco Ocaña

2002ko Iraila.



Campo y fábrica: las dos caras de la nostalgia. Octubre 1983.



Canal del viejo Batán sobre el río Ultzama. Julio 1998.




Fábrica de Onena. Una historia derruída. Julio 1998.



Nuevo edificio en el lugar de la desaparecida fábrica de Onena. Agosto 2002.

Villava cuatro visiones





Río Ultzama, reflejo urbano. Noviembre 2001.

Villava cuatro visiones



Industrias San Andrés desde la calle Atarrabia. Marzo 1997.



Parque Ribed. Tocón de secuoya. Agosto 2001.



La "Cadena", el pasado reciente. Mayo 2002.



Vista de la calle Nuestra Sra. Del Rosario. Imagen del desorden. Mayo 2002.

Villava cuatro visiones





Villava cuatro visiones



La gran torre. Plaza de la Paz, popularmente "de los montículos". Mayo 2002.



Calle Karrobide, vista elevada. Mayo 2002.



Rotonda de las calles Ezcaba, Fermín Tirapu y Bidaburúa. Agosto 2002.



Vieja entrada a Villava por la calle Serapio Huici. Agosto 2002.



Calle Bidaburúa, desde la rotonda de la calle S. Huici. Agosto 2002.



Avenida de Pamplona. Monumento al ciclista Miguel Indurain. Mayo 2002.

Villava cuatro visiones




Reflejo. Nuevo polideportivo "Hnos. Indurain". Marzo 2001.



Villava desde la Ronda Norte. Agosto 2002.

Villava cuatro visiones



PACO OCAÑA. (1949.- Jimena, Jaén.) Vive en Pamplona desde 1951. Domiciliado en Villava. Titulado por la Universidad de Zaragoza (Escuela Universitaria de Estudios Sociales.)

Ingresa en la A.F.C.N. en 1976. En 1983 dirige su revista.- Desde 1980 realiza y participa en numerosas exposiciones individuales y colectivas.- Escribe y publica textos sobre temas fotográficos en medios especializados, catálogos y otros.- Realiza la crítica fotográfica en el periódico “Navarra Hoy”, 1990-1992.

Miembro del Consejo Navarro de Cultura, 1987-1992.- Vocal de Fotografía del Ateneo Navarro-Nafar Ateneoa, 1991-1997.- Comisario de las exposiciones “CONTRASTES. Nueva generación” 1989; “VISIONES PARA UNA DÉCADA. Panorama actual de la fotografía navarra” 1990. (Gobierno de Navarra).- “JACQUES HENRI LARTIGUE” 1992. (Museo de Navarra).- “TIERRAS, GENTES, PUEBLOS” 1997. (Ateneo Navarro / Ayuntamiento de Pamplona).

Organiza y dirige el ciclo de conferencias “LA FOTOGRAFÍA COMO ARGUMENTO” (Ateneo Navarro) en ediciones de 1992, 1993 y 1994 (Museo de Navarra).- Realiza el curso monográfico “EL RETRATO FOTOGRÁFICO” 1993, un recorrido por la historia del retrato en la fotografía.-

Director y profesor de cursos de iniciación fotográfica en varios niveles, desde 1994, (Casa de Cultura, Villava).

Seleccionado para integrar el proyecto “FOTÓGRAFOS DE FIN DE MILENIO,-

ANDALUCÍA – 2” patrocinado por Diafragma-Foto, de Córdoba, donde colabora la Junta de Andalucía. 1999.

Citado en: “Historia de la Fotografía Española, 1839-1986”. Varios autores.- “Apuntes para una historia de la Fotografía en Navarra”, de C. Canovas, 1990.- “Gran Enciclopedia Navarra”, aptdos. Fotografía, A.F.C.N. y Consejo Navarro de Cultura. 1990 (CAN).- “Signos de identidad histórica para Navarra”. 1997 (CAN).- “OTEIZA-MONEO”, cat. Expo/92, Sevilla, (Gob. Navarra).- “CUATRO DIRECCIONES, fotografía contemporánea española, 1970-1990”, 1991.(Ed. Lunwerg / Museo Reina Sofía).

Su trabajo fotográfico, tanto creativo como profesional, lo dedica principalmente al retrato, el tema urbano y la fotografía de viajes, habiendo publicado imágenes suyas en diversos libros, entre otros “PAMPLONA-IRUÑA, imágenes y palabras” con texto de José Mª Romera, 1997 (Ayto. Pamplona), “NAVARRA POR MIL CAMINOS”, texto Javier Pagola, 1998 (Gob. Navarra), “LA HISTORIA SECRETA DE LOS KILIKIS DE PAMPLONA”, de Jesús C. Gómez, 2001.

Tiene obra fotográfica en el Museo de Navarra (Pamplona), Museo Gustavo de Maeztu (Estella), Photomuseum (Zarautz), Ayuntamiento de Villava y particulares.

PACO OCAÑA. (1949.-Jimena, Jaen). Iruñean da 1951z geroztik eta Atarrabian bizi da egun. Tituluduna da Zaragozako Unibertsitatean (Gizarte Ikasketetako Unibertsitate Eskola).

1976an sartu zen A.F.C.N. elkartean. 1983an bere aldizkari propioa zuzendu zuen. 1980tik aurrera hainbat erakusketa indibidual eta kolektibotan hartu du parte. Argazkigintzaren inguruko gaiei buruzko testuak idatzi eta argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan, katalogoetan eta abarretan. “**Navarra Hoy**” egunkarian argazkigintza arloko kritikak egin zituen, 1990-1992.

Nafarroako Kultur Kontseiluaren kide izan zen, 1987-1992. Nafar Ateneoa-Ateneo Navarro erakundean mahaikide izan zen, 1991-1997. Komisari lanak egin ditu hainbat erakusketatan: “**CONTRASTES. Nueva generación**” 1989; “**VISIONES PARA UNA DÉCADA. Panorama actual de la fotografía navarra**” 1990. (Nafarroako Gobernua).-“**JACQUES HENRI LARTIGUE**” 1992. (Nafarroako Museoa).-“**TIERRAS, GENTES, PUEBLOS**” 1997. (Nafar Ateneoa / Iruñeko Udala)).

“**LA FOTOGRAFÍA COMO ARGUMENTO**” (Nafar Ateneoa) izenburupeko hitzaldiak antolatu eta zuzendu zituen 1992, 1993 eta 1994 urteetan (Nafarroako Museoa). “**EL RETRATO FOTOGRÁFICO**” izeneko ikastaro monografikoa burutu zuen 1993an, erretratuaren historia argazkigintzan eginez. Argazkigintza hastapen-ikastaroak zuzendu eta eman ditu hainbat mailatan 1994az geroztik, (Kultur Etxea. Atarrabia).

Kordobako Diafragma-Foto etxeak babestutako eta Andaluziako Juntak lagundutako “**FOTÓGRAFOS DE FIN DE MILENIO, -ANDALUCIA-2**” izeneko proiektuaren baitan sartzeko aukeratua izan zen 1999an. Aipatua izan da hainbat lanetan: “**Historia de la Fotografía Española, 1839-1986**”. Hainbat egile. “**Apuntes para una historia de la Fotografía en Navarra**”, C. Canovas, 1990. “**Gran Enciclopedia Navarra**”, Argazkigintza, A.F.C.N. eta Nafarroako Kultur Kontseilua ataletan. “**Signos de identidad histórica para Navarra**”, 1997 (NAK). “**OTEIZAMONEO**”, Sevillako Expo.92ko katalogoa, (Nafarroako Gob.). “**CUATRO DIRECCIONES, fotografía contemporánea española, 1970-1990!**”, 1991. (Lunweg Ed. / Sofia Erregina Museoa).

Bere argazki lanaren ardatza erretratua, hiriko gaiak eta bidaietako argazkiak dira. Bere irudiak hainbat liburutan argitaratuak izan dira, besteak beste: “**PAMPLONA-IRUÑA, imágenes y palabras**”, Jose M^a Romeraren testuekin, 1997, (Iruñeko Udala). “**NAVARRA POR MIL CAMINOS**” Javier Pagolaren testuekin, 1998 (Nafarroako Gob.), “**LA HISTORIA SECRETA DE LOS KILIKIS DE PAMPLONA**”, Jesús C. Gomezena, 2001.

Bere argazkiak Nafarroako Museoa (Iruñea), Gustavo de Maeztu Museoa (Lizarra), Photomuseum-en (Zarautz), Atarrabiako Udalean eta partikularren eskuetan ditu ikusgai.

José M^a Ballesta

Adolfo Lacunza

Paco Ocaña

Juantxo Oskoz

Una mirada desde el monte Ezkaba y vemos cómo se ha transformado en los últimos veinte años, toda la comarca de Pamplona.

Se ha edificado masivamente en estas tierras que hasta ahora habían servido para la agricultura y apenas se distinguen los antiguos asentamientos de los pueblos.

Si fotografiar es escribir con luz, fotografiar tu pueblo es escribir con emociones, recuerdos y vivencias, que para cada uno son especiales.

Todo ha sido demasiado rápido en estos años, hemos pasado de ser un pueblo industrial y de habitantes tradicionales, a ser una zona urbana y masificada. Influenciada por la cercanía a Pamplona, ha imitado su desarrollismo de barrios nuevos, ha perdido espacios y edificaciones necesarios para mantener en Villava un estilo de vida más personal y de calidad, a una escala más humana.

En estas fotos mezclo miradas que son ya historia de nuestro pueblo con rincones que aún están ahí.

Cada vez hay que acercarse un poco más para distinguir la flora y la fauna que ha sobrevivido en este hábitat tan modificado, siguen siendo restos de vida autóctona que se adaptan a condiciones tan agresivas para ellos.

A orillas del río Ulzama y del monte Ezkaba, reaparecen cada estación, son seres y plantas que nos enriquecen con su diversidad.

Así descubres, que todo lo que se gana en comodidad material, lo pierdes en el entorno Natural.

Mirar tan cerca es ver tiempos de hormigón, coche, prisas, consumo... y la fotografía, espejo de nosotros, nos detiene con ella, cazadores de imágenes, archivando nuestros recuerdos, tiempo, poesía.

BEGIRADAK

Ezkaba mendiaren gainetik so egiten badugu berehala somatuko dugu Iruñerri osoak azken hogei urteotan jasan duen eraldaketa.

Oraintsu arte laborantzarako erabiltzen ziren lur hauetan ikaragarri eraiki da eta zaila egiten zaigu herri ezberdinen antzinako kokaguneak bereiztea.

Argazkiak egitea argiaz idaztea bada, norberaren herria argazkitan islatzea, norbanako bakoitzarentzat oso bereziak diren emozioen, oroitzapenen eta bizipenen bidez idaztea da.

Guztia joan da oso azkar azken urteotan, herri industrial bat eta tradizioan bustitako biztanleak izatetik hiri masifikatu bat izatera igaro gara. Iruñarekiko hurbiltasunaren eraginez hirigintza mailako garapen bertsua burutu da auzo berriak eraikitzeko orduan; Atarrabian bizimodu berezkoagoa eta kalitatezkoagoa eta giza mailan egokiagoa mantendu ahal izateko nahitaezkoak ziren espazioak eta eraikinak galdu dira.

Argazkiotan, jada gure herriaren historia diren begiradak eta gaur egun oraindik bertan dirauten txokoak nahasten ditut.

Gero eta gehiago hurbildu beharra dugu halako eraldaketa pairatu duen habitat honetan bizi-raun duen flora eta fauna bereizteko. Hauexek dira beraientzako hain erasokorrak diren baldint-

zetara egokitzen diren bizitza autoktonoaren azken aztarnak.

Ultzama ibaiaren ertzean eta Ezkaba mendiaren hegaletan berragertzen dira urataroero: haien aniztasunaz aberasten gaituzten izaki eta landareak dira.

Honela ohartzen zara arlo materialean irabazten den guztia Ingurumenean galtzen duzula.

Horren gertura begiratzea hormigoi, auto, pre-sazko eta kontsumo garaiak ikustea da.... eta argazkiak, geure ispilua den horrek, berarekin batean geldiarazten gaitu, irudien ehiztari, gure oroitzapenak gure denbora, gure poesia artxibatu.

Villava cuatro visiones





Villava cuatro visiones













Villava cuatro visiones


























Villava cuatro visiones



*“A los que fueron,
los que son,
y a los que vendrán...”*

Juan Oscoz Oroz

Comienzo en la fotografía en 1978 trabajando en ONENA empresa de artes gráficas en la sección de fotomecánica, durante 3 años.

De 1981-84 trabajó en un estudio de fotografía industrial y publicitaria de Pamplona.

Desde 1985 hasta la actualidad, me dedico a la fotografía profesional abriendo estudio fotográfico, en Villava (Plaza Sancho VI el sabio, nº 3).

CURSOS

Recibidos

Curso de iluminación fotografía de bodegones
Cámara 9x12.

(Broncolor-Basilea Suiza 1991)

Cursillo de B/N-Koldo Chamorro 1994

Impartidos

Talleres iniciación a la fotografía.

Casa de cultura de Villava.

Casa de Cultura de Berriozar.

Auzótegui.

Escuela infantil Ama-Lur de Villava (profesorado).

TRABAJOS REALIZADOS

- Reportajes en Fábricas. Elaboración de Catálogos Industriales.
- Productos, maquinaria instalaciones.
- Reportajes en Ayuntamientos, Centros escolares, Actos Sociales, etc.

- Reportajes Deportivos, Fútbol, Pelota, Ciclismo.
- Reportajes Congresos Eusko Ikaskuntza.
- Reportajes desde 1995 hasta hoy en CEIN, S.A. he documentado lo relacionado a "Mercaactiva y Aptapyme".
- Documentar durante 3 años de 1986-89 como fotógrafo independiente (Prensa Local) Diario Egin.
- Noticias locales, Actos Culturales, Deportivos Osasuna.
- Reproducción Fotográfica Archivo del Ayuntamiento de Tolosa "libro Formación de Tolosa". Planos y grabados.
- Colaboración Museo de Navarra. Fotografiar minuciosamente el Altar Mayor de la Catedral de Tudela en 1999 para su restauración.
- Hacer reportajes a grupos de música, de teatro locales.
- Documentar obra para catálogos Aristas locales:
- Domingo Iturgaiz José Ulibarrena, Patxi Buldain, Jesús Elizaizín, M^a Bayo.
- Miguel Indurain "Boda" etapas Tour-Giro.
- Realización de la Enciclopedia La Gran Cocina Navarra "4 Tomos".
- (Documentar todos los platos de la obra en los distintos restaurantes de Navarra, monográficos y bodegones) 6x6 y 9x12.
- He realizado las fotografías en 3 libros de Cocina de Angelita Alfaro.
- Fotos de mujeres para el video de Elena Taberna (la mirada de Lot).

Juantxo Oskoz Oroz

1978an murgildu nintzen argazkigintzan, Onena grafikagintza lantegiko fotomekanika atalean 3 urtez lanean arituta.

1981etik 1984ra bitarte publizitate- eta industria-argazkigintzan aritzen zen Iruñeko estudio batean egin nuen lan.

1985etik gaur egunera arte argazkigintza profesionalean aritzen naiz eta estudioa ireki dut Atarrabian (Antso VI. Jakitunaren Plaza, 3).

IKASTAROAK

Hartuak:

Bodegoien argazkien argiztapenari buruzko ikastaroa. 9 x 12ko Kamera.

(Broncolor – Basilea, Suitza. 1991)

Z/B buruzko ikastaroa. Koldo Chamorro. 1994

Emanak:

Argazkigintzari buruzko hastapen-ikastaroak.

Atarrabiako Kultur Etxea

Berriozarko Kultur Etxea

Auzotegi

Atarrabiako Ama Lur Haur Eskola (irakasleagoa)

LANAK:

- Erreportajeak Lantegietan. Industri Katalogoak.
- Produktuak, instalazioetako makinariak.
- Erreportajeak Udaletan, Ikastetxeetan, ekitaldi sozialak, etab.
- Kirol Erreportajeak: futbola, pilota, Txirrindularitza.

- Erreportajeak Eusko Ikaskuntzaren Kongresuetan.
- Erreportajeak 1995etik gaur egun arte CEIN, S.A. “Mercactiva y Aptapyme” izeneko ekimenaren dokumentazioa burutu dut.
- Argazkilari independente gisa herriko prentsan eta Egin egunkarian aritu naiz. 1986-1989.
- Herriko berriak, Kultur ekitaldiak, Osasuna taldearen kirol berriak.
- Tolosako Udalaren Artxibategia Argazki-erreproduktzioa, “Tolosaren eraketaren liburua”. Planoak eta grabatuak.
- Lankidetza Nafarroako Museoarekin. Tuterako Katedralaren Aldare Nagusia zehatz-mehatz fotografiatzea 1999an, honen zaharberritzea egiteko.
- Erreportajeak herriko musika eta antzerki taldeei.
- Herriko Artisten lanen katalogoen dokumentazioa:
- Domingo Iturgaiz, Jose Ulibarrena, Patxi Buldain, Jesus Elizaizin, M^a Bayo.
- Miguel Indurainen ezteiak eta Tourreko eta Giroko hainbat etapa.
- La Gran Cocina Navarra izeneko entziklopedia “4 liburuki”. (Nafarroako jatetxeetako lan honetan agertzen diren plater guztien dokumentazioa, monografikoak, etab.) 6 x 6 eta 9 x 12.
- Angelita Alfaroren sukaldaritzari buruzko 3 liburuen argazkiak egin ditut.
- Emakumezkoen argazkiak ELENA TABERNAREN LA MIRADA DE LOT filmearentzat.

Villava | Atarrabia
cuatro visiones | lau ikuspegi



Adolfo Lacunza | Juantxo Oskoz
José M^a Ballesta | Paco Ocaña



AYUNTAMIENTO DE VILLAVA
ATARRABIAKO UDALA

SERVICIO DE CULTURA
KULTURA ZERBITZUA